Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Llaguno Bilbao

Basauri, Bizkaia (1925)

Aurkibidea

Biografia

Elexalde auzoan jaio zen. Aita Artzentalesekoa zuen eta ama Bakiokoa. Gehienbat Bakio aldeko euskaraz egiten zuen.

Zintak

BSR-033

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1990-07-01
- **Iraupena**: 24 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gisasola, Jaione
- **Emalea**: Arretxe, Jon

Pasarteak

1. Txikitatik euskaraz

- **Erref**: BSR-033/002
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:00:27. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
San Migelen jaio zen. Ama Bakiokoa eta aita Artzentaleskoa zuen. Amak euskaraz hitz egiten zuen eta aita ulertzeko gai zen. Emazteak ez zekien euskaraz eta alabak eta semeak euskaraz ikasi zuten, nahiz eta berarekin ez hitz egin sarritan.

2. Elgoibarren lanean

- **Erref**: BSR-033/004
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:05:47. **Bukatu**: 00:08:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Elgoibarren egon zen lanean Basconiatik bidalia. Bertan euskaraz egiten zuen, nahiz eta Elgoibar eta Eibarkoen euskara berezia izan batzuetan. Bakioko eta San Migeleko euskara nahasten zituen eta bereizteko gai zen, nahiz eta ez zuen desberdintasun handirik ikusten. Bermeo eta Bizkaiko beste herrien desberdintasunez hitz egiten zuen.

3. Euskara "zarratua" politen

- **Erref**: BSR-033/005
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:08:15. **Bukatu**: 00:10:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskara garbia eta gaztelerazko maileguez hitz egiten du Juanek. Euskara polita zein den azaltzen du.

4. Umetan euskara gutxi

- **Erref**: BSR-033/006
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:12:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Umetan ez zuen euskaraz egiten San Migeleko umeekin. Gehienek ez zekiten hitz egiten eta ama eta auzoko batzuekin egiten zuen, zaharrekin.

Transkripzioa
- Ta zuk ordun, euskeraz egin izen duzu hor San Migelen? Sam Migeleko jentiagaz ta holan, umietan ta holan?
-Ez, ez, ez. Ez, ez, ez, ez, ez.
- Zuk dekozu...
- Horrek ez dabe jakin euskera dakixatela, netakixela euskeraz.Asi que pentsa eizu.
- Ez e?
- Bueno, jakin bai ze amagaz eiten neula lehen, ezta, baie eurekaz iñoiz be ez ez dot in, gehixenak ez dakiez. Gehixenak ez dakiz, ez dakiek euskeraz. Ta ni, bai.
- Ordun zuk amaz bakarrik in dozu?
- Amagaz ta auzoko bat daukou... bueno auzokoak batzuk, bastante. Bueno, auzokoak, jente zaharra.
- Hori.. hemengoak ala?
- Ez, ez, ez. San Migelen.
- Horrekaz iten zendun?
- Bai, bai, bai. Baie ya jente zaharra e. Nire amaman moduen [...]. San Migelen ez zan iten uste dot euskera, ta hemeti joaten bazara, [...] ta horti...
- Bai.
- Hor gehixenak dakiz euskeraz.
- Bai, bai, bai.
- Baie... guk beiño txarrau. Guk beiño txarrau iten dabe.
- Jende askok be deko horko partien euskera erdi ahiztuta...
- E, e! Ez eurien gaztetan ez eurien beti... ta ekin in behar hortako!
- Bai, bai.
- Neuk bere ya... batzutan ez... iten dot, e baie, iten dot.

5. Hiketan Bakion

- **Erref**: BSR-033/007
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:12:09. **Bukatu**: 00:13:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hika hitz egiten Bakion ikasi zuen eta Bakioko senideekin hitz egiten zuen gehien. Euskaraz gazteleraz baino hobeto moldatzen zirela kontatzen du.

Transkripzioa
- Zuk hiketan hik egiten dozu ezta? - Ba, ba, ba. - Ta hori non ikisi dozu ba? - Bakixon. - Bakixon egiten da hori? - Bai, bai. - Bai e? - Bai. - Pentse dot ezetz e. - Ez, ez, ez, ez. Hangoa da, hangua ta igual San Migelen bere zeuzer, bai, hiketan hik bai, zuk eta nik edo. - Hori egiten da orduen hiketan hik... - Bai, bai. Bai, bai. Seguro además e. - Hango

baserrikoak eta... - Baserriek eta herrikoak. - Bai, e? - Bai. Orain, bueno, herrixen orain kanpotarrak egongo da hor asko baie, bertakuak'e bertakoak danak dakiz euskeraz e. - Bai. - Bakixokoak e. - Ta egiten daube? - Bai. - Bai? - Bai, bai, bai, bai. - Lehengusu batzu dekodaz han eta euskeraz, erderaz baiño hobeto. - Bai e? - Bai, bai. Bai, bai. - Pasaten dana han, uda partien ta... - Bat orain Bermeora joan da bizitzen, bueno, tailler bat in bihar han berak eta... bai. Domektan eta, badakizu, nik domeketan esaten dot. - Bai, bai, bai. - Nik domekia. - Holan esaten da hemen. - E? - Honek dio... Ba, etortzen da Bakixora, joe, erderaz behin'e bota, euskeraz.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-09

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com